



FEDERACION VIZCAINA DE TAEKWONDO
BIZKAIKO TAEKWONDO FEDERAKUNDEA

TAEKWONDO



ESKOLA KIROLA-JARDUNALDIA 2016/2017 ikasturtea - LEHIAKETA JARDUNALDIA

DATA: MAIATZAK 21
TOKIA: ZORROTZA KIROLDEGIA

ORDUTEGIA: 9,30etatik aurrera.
ANTOLATZAILEA : Bizkaiko Taekwondo Federazioa.

IZEN EMATEAK: Izen emateak Maiatzaren 8 baino lehen entregatu beharko dira Bizkaiko Taekwondo Federazio honetan. Partehartzea librea izango da, hau da, Entitate bakoitzak nahi dituen lehiakideak aurkeztu ahalko ditu maila bakoitzean.

***- 2006ko lehiakideen zerrendetan kaskoarengan akzioa nahi bada edo ez zehaztu. L**

DATA HORRETARAKO, ERANTSITAKO ORRIAN KLUBEN ZERRENDAK EGONGO EZ BALIRA, EZINGO DUTE IZEN EMATERIK BURUTU (ARAU HAU APLIKATUKO DA)

ADINA: Txapelketa honetan parte hartzeko gutxienez 9 urte izan beharko dira eta gehienez 11. (urte naturalak).

MAILAK: Bai gizonezkoetan eta bai emakumezkoetan 3 maila egongo dira.

- 9 urtekoen maila (2008 urtea)
- 10 urtekoen maila (2007 urtea)
- 11 urtekoen maila (2006 urtea)

DOKUMENTAZIOA: - Kirol txartel originala indarrean dagoen graduen txartelarekin batera.

- N.A.N originala edo Familia liburua.
- Gurasoen baimena.
- Eskola Kiroleko lizentzia

PISAKETA MAIATZAK 10 ASTEAZKENA 17,30etatik 19:00etara Euskadiko Taekwondo Federazioan, Julian Gaiarre, 44, Txurdinaga.

:
.

ARBITRAJEA: W.T.F-ko eta E.T.U-koegungo arautegiaren arabera arautuko da. Arbitroak behar bezala jantzita joan beharko dira: alkandora zuria, praka grisa, gorbata urduna, zapatila zuriak eta itsas urdin koloreko jaka. Arbitroek 2017an epaileen elkargoko kide izan beharko dira **derrigorrez**.

BABESAK: Kasko integrala edo kasko normala, besaurre petoa, oinbular zango-babesa, barrabil-babeskia, eskularruak eta ahokoa.

ARAUDIA: Ezingo da aurpegian kolpatu eta "TUIT eta PIVOTE BANDAN" ekintzako 2 puntu gehituko dituzte. 10 puntuko diferentziak egongo dira, puntuen toperik gabe.

2006ko maila (11 urte), bi coachek edo lehiakideek horrela adosten badute, kaskoaren gaineko ekintzekin jokatu ahalko dute. Bietariko batek EZ badu hau onartzen, erdialdeko eremuan bakarrik lehiatuko da.

Onartzen badute, kaskoan ematen den ostikadaren puntuazioa 3 puntutakoa izango da, mondollyo eta pibote dollyo kaskoan 4 puntu eta **2 puntu** Tuit edo pibote bandala. ESTALKIDUN KASKOA ERAMATEA DERRIGORREZKOA IZANGO DA.

Minutu eta hamabosteko 3 asalto izango dituzte borrokek, baina antolakuntzak parte-hartzaile eta denbora erabilgarria ikusirik bira jaisteko eskumena izango du.

Klub bakoitzak Maiatzaren 8a baino lehen, izena, adina, pisua, altuera eta gerrikoen datuekin osatutako gizonezkoen eta emakumezkoen zerrenda erraztuko du. (emailez bidali beharko a) eta coach bakoitzaren izenak agertu beharko dira.

Ohar garrantzitsua, Eskolarteko jardunaldien funtzionamendu egokia lortzeko, lehiaketa eremuan ezingo da inolako grabaketarik egin. Lan hori soilik Bizkaiko Taekwondo Federazioak zeregin horretara zuzenduriko pertsonak egin ahalko dute. Lehiaketa eremuan momentu horretan eta hurrengo borrokan lehiatzera irtengo diren lehiakideak eta lehiakide bakoitzari dagokion coach-a baino ezingo dira egon.

W.T.F-eko batzorde exekutiboak,Imintzioak eta txaloak,borrokan zehar coachek egindako keinu nabarmenak lehiaketetan nazioarteko arautegiaren arabera zigortuko duela adostu zuen. Zigor hauek lehiakide eta coachen kanporatzea ekar dezakete.

Aipatutako jarrerek biolentzia eta zaletu eta gainontzeko parte-hartzaileen desordena bultzatzen dute. Guzti hau Kirol Diziplina Arautegiaren eta kirolean ematen den biolentziaren Dekretuaren aurka doaz.. Horrez gain irudi txarra eta kaltegarria ematen diote arau hauste hauek egiten dituzten kideek gure kirolari.

Guztion arten jardunaldi hauek kiroltasunez eta errespetuz bizi ditzakegu.



BTF

BIZKAIKO TAEKWONDO FEDERAZIOA
FEDERACIÓN VIZCAÍNA TAEKWONDO

☎ 944418408 feviztkd@euskalnet.net

HAUR TXAPELKETAN PARTE HARTZEKO GURASOEN BAIMENA

.....Jaun/Anderea
.....NAN Zenbakiarekin
etakirolariaren(tutore
/guraso) bezala,n ospatuko
dentxapelketan parte hartzea baimentzen dio.